



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2011/12 Denboraldia

13. ZK DUN ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

LEHENENGOA.- 2011/12 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berariaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

BIGARRENA Jokoaren arauak FIFAk argitaratuko ditu.

HIRUGARRENA Euskal Ligako partida guztiak ASTORE PROSALA, modeloko baloi ofizialarekin jokatu beharko dira derrigorrez.

Partida hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

LAUGARRENA.- Taldeek partida hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partida hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

BOSGARRENA.- Partidaren hasieran talde bakoitzak gutxienez sei jokalaria eta taldeko ordezkari bat aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara. Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, **Entrenatzaile "ES"** lizentzia izan beharko dute Nivel 1 titulazioduna gutxienez , eta partida guztietan aurkeztu beharko dute.

Behar hau ez bada betetzen dagokion jurisdikzio-organoak falta arinatzat hartuko du.

Klubek talde bakoitzeko aldi berean hamabost jokalaria gehienez eta zortzi gutxienez izan dezakete LL.FF.tan gazte mailako taldea ez dutenek, haien artean gutxienez hogeitabat beko (91/01/01 tik aurrera jaiotakoak) hiru jokalaria izen behar dituzte



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

SEIGARRENA.- Areto-futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.

ZASPIGARRENA.- Partidak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

ZORTZIGARRENA.- Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 63. eta 51. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

BEDERATZIGARRENA .- parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak dira Berri Otxoa CD, Eguzki Areto Futbola, Eskolapioak KE, Eskoriatza KE, Goierri KE, Kukuyaga FC, Kurutziaga Ikastola, Lagun Onak CDA, Lauburu Ke Ibarra, Mamarigako CD Fútbol Sala, Reformalux CD, Sasikoa de Durango CD, Tolosala AF, KE Tolosa, UPV/EHU Campus Alava, Uxo CD FS.

HAMARGARRENA.- Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partiduekin. Guztira hogeita hamar jardunaldi izango dira.

HAMAIKAGARRENA.- Igoera eta jaitsiera postuen lehiaketa sistema, "Comite Nacional de Fútbol Sala" delakoaren menpe gaude, A.F Hirugarren Mailaren arauak argitaratu arte.

HAMABIGARRENA.- .Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Euskadiko Futbol Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

2011ko irailak 14, Bilbon


JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General